

## LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### Zk-2906

EBAZPENA, 2003ko otsailaren 28koa, Ingurumen sailburuordearena, Lantarongo udalerrian arkitektura-panelak fabrikatzeko plantari buruzko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen arabera, bere I. eranskinen B) atalean agertzen diren proiektuak ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazioaren menpe izango dira, eta prozedura horri amaiera emateko ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin beharko da, betiere proiektu horiek egiteko edo, hala badagokio, baimentzeko hartzen den administrazio-ebazpenaren aurretik.

Lantarongo udalerrian I.B Coatings S.A enpresak sustatutako arkitektura-panelak fabrikatzeko plantari buruzko proiektua baimentzeko prozedura hasi da, eta otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretuak eta hori garatzeko Araudia onesten duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz, besteak beste, honako izapide hauek bete dira:

- 2001eko azaroaren 7an sustatzaileak Jarduera-lizentzia eskatu zuen.
- 2002ko maiatzaren 22an aurretiazko kontsultei buruzko izapideari hasiera eman zitzaion.
- 2002ko abenduaren 5ean espedientearen agiri teknikoak bete ziren.
- Ingurumen-inpaktuaren azterlana eta proiektua jendaurrean jarri ziren hogeita hamar egunetan (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 5. zk., 2003ko urtarrilaren 9koa).

Erreferentziako proiektuaren espedientearen dauden txostenak eta agiri teknikoak aztertu ondoren, eta ingurumen-inpaktuaren azterlana indarrean dagoen araudian aurreikusten diren alderdiei egokitzen zaiela aintzat hartuta, Ingurumen Sailburuordetzak, ingurumen-inpaktuaren adierazpena emateko eskumena duen organoa izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 20ko 306/2001 Dekretuaren arabera, ondokoa

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### Nº-2906

RESOLUCION de 28 de febrero de 2003, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se formula la Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de una Planta de Fabricación de Paneles Arquitectónicos en el término municipal de Lantarón.

De conformidad con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, los proyectos contemplados en el apartado B) de su Anexo I quedan sometidos al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, que culmina en una Declaración de Impacto Ambiental a formular con carácter previo a la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los citados proyectos.

Iniciado el procedimiento de autorización del Proyecto de una Planta de Fabricación de paneles arquitectónicos en el término municipal de Lantarón, promovido por I.B Coatings S.A., y resultando de aplicación lo dispuesto tanto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, como en el Real Decreto Legislativo 1302/1986 de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental y en el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre por el que se aprueba el Reglamento para su desarrollo, se han formalizado en relación con el mismo, entre otros, los trámites que a continuación se relacionan:

- Con fecha 7 de noviembre de 2001 el Promotor solicitó Licencia de Actividad.
- Con fecha 22 de mayo de 2002 se da inicio al trámite de consultas previas.
- Con fecha 5 de diciembre de 2002 se completa la documentación técnica del expediente.
- Información pública del proyecto y estudio de impacto ambiental por un período de treinta días. (Boletín Oficial del País Vasco N.º 5 de 9 de enero de 2003).

Examinada la documentación técnica y los informes obrantes en el expediente del proyecto de referencia, y a la vista de que el estudio de impacto ambiental se ajusta a los aspectos previstos en la normativa en vigor, la Viceconsejería de Medio Ambiente, órgano competente para el dictado de la presente Declaración de Impacto Ambiental de acuerdo con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y el Decreto 306/2001, de 20 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente,

## EBATZI DU:

1.– Lantarongo udalerrian I.B Coatings S.A enpresak sustatutako arkitektura-panelak fabrikatzeko plantari buruzko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpen hau egitea.

2.– Proiektua gauzatzeko, ondoren adieraziko diren baldintzak ezartzea. Baldintza horiek lotesleak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 47.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera.

2.A.– Sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduraren esparruan Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztutako dokumentazioaren arabera garatuko da proiektua, bai eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen honetan bildutako zehaztapenen arabera ere.

2.B.– Proiektu honen ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazioa egiteko, plantak urtean 180.000 tona arkitektura panel ekoizteko edukiera duela hartuko da kontuan. Proiektua aldatzen edo zabaltzen bada, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 50. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

2.C.– Proiektuaren sustatzaileak ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztu dituen agirietan jasotakoaren arabera burutuko dira neurri babesle eta zuzentzaileak, eta ondoko ataletan zehaztutako neurriekin osatuko dira:

2.c.1.– Neurri zuzentzaileak obren fasean

2.c.1.1.– Jardun-esparruaren mugaketa

a) Arkitektura-panelak fabrikatzeko plantaren erai-kuntzarekin zerikusia duten jardun guztiak, hala nola, makineria-parkeari eta materialak biltzeko eta obrako hondakinak behin-behinean biltegitratzeko alderdiei dagozkienak, etab., lursailaren barruan edo alboko lurretan kokatuko dira, baina planta instalatuko den industrialdearen barruan betiere, eta aurreikusitako industria-erabilerakoak ez diren eremuetan eraginik sorrarazi gabe.

b) Lursailean ezer egin aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko zuhaitz batzuk zuhaitz apartekotzat jotzen dituen maiatzaren 16ko 265/1995 Dekretuaren arabera babestu diren, eta proiektuaren atxikipen-eremutik gertu dauden pinazi-pinuen (*Pinus pinea*) inguruan, Babes Gune Periferiko bat zehaztu beharko da.

Babes Gune Periferikoaren tamaina ez da inola ere aipatu Drektuaren 4. artikuluan adierazitakoa baino txikiagoa izango, eta bertan galarazita dago apartekotzat jo diren zuhaitzei kalte eragin diezaiekeen jarduerarik egitea

## RESUELVE:

1.– Formular la presente Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de Planta de Fabricación de Paneles Arquitectónicos, promovido por I.B. Coatings en el término municipal de Lantaron, con carácter favorable.

2.– Imponer las siguientes condiciones para la realización del proyecto, las cuales son vinculantes de acuerdo con lo especificado en el artículo 47.2 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

2.A.– El proyecto se desarrollará de acuerdo con la documentación presentada por el Promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente en el marco del procedimiento de evaluación de impacto ambiental del mismo, así como con las determinaciones contenidas en la presente Declaración de Impacto Ambiental.

2.B.– La evaluación de impacto ambiental de este proyecto se realiza teniendo en cuenta una capacidad de producción de panel aislante en la planta de 180.000 m<sup>2</sup>/año. En los supuestos de cambios o ampliaciones del proyecto resultará de aplicación lo dispuesto en el art. 50 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

2.C.– Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor del proyecto para su Evaluación de Impacto Ambiental, debiendo añadirse las siguientes:

2.c.1.– Medidas correctoras durante la fase de obras

2.c.1.1.– Delimitación del ámbito de actuación.

a) Todas las actuaciones relacionadas con la construcción de la planta de fabricación de paneles arquitectónicos, tales como el parque de maquinaria, las zonas destinadas para acopio de materiales y almacenamiento provisional de residuos de obra, etc., se ubicarán en el interior de la parcela o en terrenos colindantes pero dentro del polígono industrial donde se prevé instalar la planta, sin afectar a áreas ajenas a los usos industriales previstos.

b) Con carácter previo a cualquier actuación sobre el terreno deberá establecerse una Zona Periférica de Protección suficiente que permita la preservación de los ejemplares de pino piñonero (*Pinus pinea*) próximos al ámbito de afección del proyecto declarados Árboles Singulares mediante el Decreto 265/1995, de 16 de mayo, por el que se declaran Árboles Singulares en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En esta Zona Periférica de Protección, cuyas dimensiones no podrán ser inferiores, en ningún caso, a las señaladas en el art. 4 del citado Decreto, queda prohibida toda actividad que pueda incidir negativamente en el Árbol Singular.

Babes-gunea mugatu eta balizatu beharko da, bai eremuan bertan, bai xehetasunezko planoan.

#### 2.c.1.2.– Urak eta lurra babesteko neurriak

a) Eraikuntza-aldian, drainadura-sarera doazen ale xeheak minimizatuko dira. Horretarako urak eramateko gailuak jarriko dira eta bukaeran solido esekiak dekantatzeko putzuak egongo dira. Era horretan, obren ondorioz kutsatutako urak bildu nahi dira, Ebroren ibilgura ez iristeko.

b) Erregaien zama-lanak, olio aldaketak, eta ibilgai-luen mantentze-jarduera orokorrak, zola iragazgaitza eta isurketak jasotzeko sistema duen gunean egingo dira.

#### 2.c.1.3.– Hautsa gutxitzeko neurriak

a) Obrak dirauen bitartean, obren esparrutik ateratzean, ibilgailuak garbitu egingo dira.

b) Pistak eta behin-behinean gorriturik dauden azalrak ureztatzeko sistema jarriko da, lehorteetan erabiltzeko.

#### 2.c.1.4. Maileguko materialak.

Planta eraikitzeke egin beharreko bete-lanetan, honako material hauek baizik ezin izango dira erabili: behar bezala baimendutako erauzte-lanetatik ateratako maileguko material lehorrak, eta hondakin geldoen eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuak III. eranskinean zehaztutako hondakinak.

#### 2.c.1.5.– Hondakinen kudeaketa

Obretan sortutako hondakinak, indusketen ondoriozkoak barne, honako hauek ezarritakoaren arabera kudeatuko dira: Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeak, hondakinak hondakindegian utziz ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuak, eta, era berean, hondakin geldoen eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuak ezarritakoaren arabera. Erabilitako olioek dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioek kudeaketari buruzko irailaren 29ko 259/1998 Dekretua ezarriko da.

#### 2.c.1.6. Kultura-ondarea babestea

Obrak egin bitartean arkeologiako aurkikuntza izan litekeen aztarnaren bat aurkituz gero, Arabako Foru Aldundiaren Kultura Sailari jakinaraziko zaio, eta Foru Aldundiak hartu beharreko neurriak aditzera emango ditu.

#### 2.c.1.7.– Paisaiarekiko egokitzapena

Planta eraikitzeke proiektuak beharrezko aurreikuspenak bildu beharko ditu plantari lotutako lurra eta instalazioak paisaiara eta alderdira egokitzeko.

Este perímetro de protección deberá delimitarse y balizarse tanto en campo como en plano de detalle.

#### 2.c.1.2.– Medidas de protección de las aguas y los suelos

a) La fase de construcción deberá realizarse minimizando la emisión de finos a la red de drenaje. Para ello, deberán aplicarse dispositivos de conducción de aguas y balsas de decantación de sólidos en suspensión de forma que se recojan en ellas las aguas contaminadas por efecto de las obras, evitando que dichas aguas accedan al cauce del río Ebro.

b) La carga de combustible, los cambios de aceite y el mantenimiento general de los vehículos se realizarán en un área que disponga de solera impermeable y sistema para la recogida de derrames.

#### 2.c.1.3.– Medidas destinadas a minorar las emisiones de polvo

a) Durante el tiempo que dure la obra se procederá a la limpieza de vehículos a su salida de la zona de obras.

b) Se dispondrá un sistema para riego de pistas y superficies transitoriamente desnudas para su uso en periodos secos.

#### 2.c.1.4. Materiales de préstamo.

En los rellenos necesarios para la construcción de la planta únicamente podrán utilizarse como materiales de préstamo áridos procedentes de actividades extractivas debidamente autorizadas y los residuos especificados en el Anexo III del Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de residuos inertes e inertizados.

#### 2.c.1.5.– Gestión de residuos

Los residuos generados durante las obras, incluidos los procedentes de excavaciones, se gestionarán de acuerdo con lo previsto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, con el Real Decreto 1481/2001, de 27 de diciembre, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero, así como con el Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de residuos inertes e inertizados. Para los aceites usados, será de aplicación asimismo el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

#### 2.c.1.6 Protección del Patrimonio Cultural

Cualquier hallazgo que suponga un indicio de carácter arqueológico que se produzca en el transcurso de las obras deberá ser puesto en conocimiento del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Álava que será quién indique las medidas a adoptar.

#### 2.c.1.7.– Integración paisajística

El proyecto de construcción de la planta deberá incorporar las previsiones necesarias para la adaptación paisajística de los terrenos e instalaciones vinculadas a la planta al objeto de favorecer su integración en la zona.

#### 2.c.1.8.– Garbiketa eta obra bukatzea

Obrak amaitzen direnean, garbiketa-kanpaina zorrotza burutuko da, eta proiektuak eragindako area guztiz garbi geratuko da obra-hondakinetatik.

#### 2.c.2.– Neurri zuzentzaileak funtzionamendu-fasean

2.c.2.1.– Uren eta lurren kutsadura ekiditeko neurriak.

a) Arkitektura-panelak ekoizteko behar diren produktu kimikoak biltegitratzean eta galдарaren funtzionamendurako erregai-ontzia egitean, produktu kimikoak biltegitratzeko araudia onesten duen apirilaren 6ko 379/2001 Errege Dekretuaren xedapenek eta ezarri ahal diren jarraibide tekniko osagarriek xedatutakoa bete behar da.

b) Plantako guneen zoladura egiteko, proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztutako agirietan ezarritakoa beteko da. Istripuz isurketa gerta daitezkeen tokietan, junturak eta lauzetan egon daitezkeen pitzadurak arkitektura-panelak ekoiztean erabilitako substantziak jasaten dituzten gaiekin itxiko dira.

c) Ekoizpen-nabeko, produktu kimikoak biltegitratzeko guneko eta hondakin arriskutsuen guneko zolatak kutxeta batera hustuko dira. Kutxeta hori iragazgaitza izango da eta plantaren drainatze-sistematik isolatuta egongo da. Kutxeta horretan bildutako efluentek baimendutako gestore batera bideratuko dira. Nolanahi ere, efluente horiek ezingo dira plantaren araztegitara eramanez, ezta industrialdearen biltzailerara edo ibilgu publikora bota ere.

d) Transformazio-zentroan kubeto edo segurtasunerako sistema iragazgaitz bat jarri behar da. Sistema horrek nahikoa edukiera izango du, mantentze-lanak egitean istripuz olio isurtzen bada edo sistemak iragazgaitz izateari uzten badiotz transformadorearen upela puskatzen bada, isur daitezkeen olio guztia bilduko dela bermatzeko, eta, era berean, ez lurraren ez uren kalitateari kalterik eragingo ez zaiola bermatzeko.

e) Olio-aldaketak, makineria eta ibilgailuen mantentze-lan orokorrak eta, hala behar denean, erregaia betetzeko lanak zolata iragazgaitza eta isuriak biltzeko sistema duen alderdi batean egingo dira.

2.c.2.2.– Jabari publiko hidraulikoaren eta polizia-gunearen atxikipenak.

a) Sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktuari ebaluazioa egiteko aurkeztutako agiriei jarraiki, arazteko plantatik ateratako efluentek industrialdea-

#### 2.c.1.8.– Limpieza y acabado de obra

Una vez finalizada la obra se llevará a cabo una rigurosa campaña de limpieza, debiendo quedar el área de influencia del proyecto totalmente limpia de restos de obras.

2.c.2.– Medidas correctoras durante la fase de funcionamiento

2.c.2.1.– Medidas destinadas a evitar la contaminación de las aguas y los suelos.

a) El almacenamiento de los productos químicos necesarios para el proceso de producción de paneles arquitectónicos, así como el depósito de combustible para el funcionamiento de la caldera deberán cumplir con las disposiciones contenidas en el Real Decreto 379/2001, de 6 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de almacenamiento de productos químicos, y las instrucciones técnicas complementarias (ITC) que les sean de aplicación.

b) Los pavimentos de las distintas áreas de la planta se construirán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada para la evaluación de impacto ambiental del proyecto. Las juntas y posibles fisuras de solera en las zonas susceptibles de sufrir un vertido accidental se tratarán mediante sellado con productos resistentes a la acción de las sustancias empleadas en el proceso de fabricación de los paneles arquitectónicos.

c) Las soleras de la nave de producción, las de la zona de almacenamiento de productos químicos y residuos peligrosos drenarán a arquetas estancas, revestidas de materiales resistentes a la acción de las sustancias presentes en cada zona, y aisladas de los sistemas de drenaje de las aguas pluviales y fecales de la planta. Los efluentes recogidos en las citadas arquetas serán gestionados por gestor autorizado, prohibiéndose en cualquier caso la conducción de dichos efluentes a la depuradora de la planta, o su vertido al colector del polígono o a cauce público.

d) En el centro de transformación deberá instalarse un cubeto o sistema de seguridad estanco con capacidad suficiente para garantizar la recogida total de aceite en caso de derrames accidentales en las operaciones de mantenimiento, o por pérdida de estanqueidad o rotura de la cuba del transformador, y evitar así efectos adversos sobre la calidad del suelo y de las aguas.

e) Los cambios de aceite, el mantenimiento general de la maquinaria y vehículos y, en su caso, las operaciones de carga de combustible, se realizarán en un área que disponga de solera impermeable y sistema para la recogida de derrames.

2.c.2.2.– Afecciones al dominio público hidráulico y su zona de policía.

a) De acuerdo con la documentación presentada por el promotor para la evaluación de impacto ambiental del proyecto, el vertido final de los efluentes proceden-

ren hodi biltzaile nagusira joango dira. Hala, bete beharko dira isuriaren mugak eta hodi biltzaile horretara isurtzeko baimenean jasotako baldintza guztiak.

Arazteko plantaren eta euri-uren sarearen irteeran laginak hartzea errazagoa izan dadin, kutxetak edo erraziristeko moduko sistemak jarriko dira.

b) Ingurumen-inpaktuaren azterketan –Lantaronen (Arabán) arkitektura-panelak fabrikatzeko planta baten ingurumen-inpaktuaren azterketaren bigarren eranskinean– adierazitakoarekin bat, planta hornitzeko behar den ura industrialdean aurrikusitako edateko uraren hornidura-saretik jasoko da. Hornidurarako ura beste nonbaitetik etorri gero, arlo horretan eskumena duen organoaren onespena eduki beharko da aurrez.

c) Jabari publiko hidraulikoaren zortasun-gunea eta/edo polizia-gunea okupatzea dakarten jarduerak guztiak Urei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztariaren 20ko Legegintzako Errege Dekretuak ezarritako baimenen arabidea bete beharko dute.

#### 2.c.2.3.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Arkitektura-panelak fabrikatzeko plantan sortutako hondakinak Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeak eta ezarri ahal diren gainerako araudi berariazkoek xedatutakoari jarraiki kudeatuko dira. Hala behar denean, hondakinen ezaugarriak aztertuko dira, beren izaera eta xederik egokiena zehazteko. Sustantzaileak hondakin arriskutsuak ekoizteko baimena eskatu beharko du edo, hala badagokio, ekoizle txikien erregistroan inskribatzeko, aipatutako araudiak ezarritakoarekin bat etorrita.

b) Erabilitako olioari dagokionez, irailaren 29ko 259/1998 Dekretua ezarriko da. Erabilitako olioaren kudeaketa arautzen du dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

c) Hondakinak aldi baterako biltzean eta garraiatzean, ingurumenean zabaltzea saihestuko da.

Hondakin horiek kendu arte plantan dauden bitartean, estalkipeko biltegian eta hormigoizko zolata gainean gordeko dira. Hondakin arriskutsu likidoak izanez gero, gerta daitezkeen isuriei eusteko sistemak egongo dira, eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak –Hondakin Toxikoei eta Arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko Araudia onesten duenak– 2. atalean ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Erabilitako ontziak ezingo dira inolaz ere nabeetatik kanpo biltegitatu.

#### 2.c.2.4.– Zaraten mugak

tes de la planta depuradora será conducido al colector general del polígono industrial, debiendo cumplir los límites de vertido y el conjunto de condiciones que se fijan en la autorización de vertido a dicho colector.

Con objeto de facilitar la toma de muestras a la salida de la planta depuradora y de la red de aguas pluviales, se habilitarán arquetas o sistemas de fácil acceso.

b) De acuerdo con lo señalado en el estudio de impacto ambiental, tomo «Apéndice segundo al estudio de impacto ambiental de una planta de fabricación de paneles arquitectónicos en Lantarón (Álava)», el agua necesaria para el abastecimiento de la planta procederá de la red de abastecimiento de agua potable prevista en el polígono industrial. Cualquier otra procedencia del agua de abastecimiento deberá contar con aprobación previa por parte del órgano competente en la materia.

c) Todas aquellas actuaciones que supongan una ocupación de la zona de servidumbre y/o policía del dominio público hidráulico estarán sujetas al régimen de autorización previsto en el Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Aguas.

#### 2.c.2.3.– Medidas destinadas a la gestión de los residuos.

a) Todos los residuos generados en la planta de fabricación de paneles arquitectónicos se gestionarán de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos y normativas específicas que les sean de aplicación, debiendo ser, en su caso, caracterizados con objeto de determinar su naturaleza y destino más adecuado. El promotor deberá solicitar la correspondiente autorización de productor de residuos peligrosos, o en su caso, la inscripción en el registro de pequeños productores, de acuerdo con lo establecido en la citada norma.

b) En el caso de los aceites usados, será de aplicación el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) El almacenamiento temporal y transporte de dichos residuos se realizará de modo que se evite su dispersión en el medio ambiente.

Durante el tiempo que dichos residuos permanezcan en planta hasta su retirada, se almacenarán bajo cubierta y sobre solera de hormigón. Para el caso de los residuos peligrosos líquidos, se dispondrán sistemas de contención de posibles derrames, y deberán cumplirse las obligaciones establecidas en la Sección 2 del Real Decreto 833/1988, de 20 de julio por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986, de 14 de mayo, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos.

En ningún caso podrán almacenarse envases de materias primas usados en el exterior de las naves.

#### 2.c.2.4.– Limitaciones a la transmisión de ruidos.

a) Jardueraren prozesuetako zarata-maila ondorengo mugetara doitu da:

– Eguneko zaratak: Etxebizitzan barrualdera jaulkitako zarata ezin izango da inoiz 40 dB (A) baino handiagoa izan barrualdean, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00 eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehieneko balioan.

– Gaueko zaratak: Etxebizitzan barrualdera jaulkitako zarata ezin izango da inoiz 30 dB (A) baino handiagoa izan barrualdean, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00 eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehieneko balioan.

– Era berean, ondoko industria-jardueren barrualdera ezin izango da 60 dB (A) baino zarata handiagorik jaulki.

#### 2.c.2.5.– Isuri atmosferikoen mugak

a) Otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuak –Ingurune Atmosferikoa babesten duen abenduaren 22ko 38/1972 Legea garatzen duenak– ezarritakoarekin bat, gasak isurtzen dituzten foku guztiak, bai lausotuak bai mugatuak, prozesu-aldian sortutakoak, jaso eta kanpoaldera hustuko dira hodi egokien bidez

Hodien sistemak aukera emango du kuantifikazio eta kontrol-tresnak ezartzeko.

b) Apar-gunean, injekzio-gunean eta elaborazio-gunean gerta daitezkeen isuriak eta gasen jaulkipenak jaso, eta kanpoaldera hustuko dira, ikatz aktiboko iragazki batetik igaro ondoren, sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorako aurkeztutako agiriei jarraiki –«Arkitektura-panelen fabrikarako sailkatutako jardueren proiektuaren bigarren eranskina. 2002ko urtarrila»–.

c) Hala ekoizpen-nabetik nola gas propanoko erre-kuntzako instalaziotik ateratako isuri atmosferikoek bete beharko dituzte otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuak –ingurumen atmosferikoa babesteko abenduaren 22ko 38/1972 Legea garatzen duenak– ezarritako mugak.

2.D.– Ingurumena zaintzeko programa burutu sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorako aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoaren arabera. Horri honako hauek erantsi beharko zaizkio:

#### 2.d.1.– Obra-faseko kontrolak

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, baita neurri zuzentzaileak eta babesleak noraino bete diren jasotzeko ere. Erregistro hori Ingurumen Sailburuordetzak ikuskatzeko moduan egon beharko da eta, obrak amaitzen direnean Sailburuordetzari bidali beharko zaio. Hala badagokio, proiektua garatu bitartean sartutako aldaketak xehetasunez doku-

a) El nivel de ruidos de los diferentes procesos de la actividad se ajustará a los siguientes límites:

– Ruidos diurnos: El ruido transmitido al interior de las viviendas no deberá superar en ningún momento los 40 dB (A) en su interior, medido en valor continuo equivalente Leq 60 segundos, entre las 8 y 22 horas con las ventanas y puertas cerradas, ni los 45 dB (A) en valores máximos.

– Ruidos nocturnos: El ruido transmitido al interior de las viviendas no deberá superar en ningún momento los 30 dB (A) en su interior, medido en valor continuo equivalente Leq 60 segundos, entre las 22 y 8 horas, con las puertas y ventanas cerradas, ni los 35 dB (A) en valores máximos.

– Asimismo, no deberá transmitirse un ruido superior a 60 dB (A) al interior de las actividades industriales contiguas.

#### 2.c.2.5.– Limitaciones a las emisiones atmosféricas

a) De acuerdo con el Decreto 833/1975, de 6 de Febrero por el que se desarrolla la Ley 38/1972, de 22 de diciembre, de protección del ambiente atmosférico, todos los focos de emisión de gases, tanto de carácter difuso como confinado, generados durante la fase de proceso deberán ser captados y evacuados al exterior por medio de conductos apropiados.

El sistema de conductos deberá permitir la instalación de instrumentos de cuantificación y control.

b) Las emanaciones y emisiones de gases que puedan producirse en la zona de espumado, de inyección y de proceso de elaboración, serán captadas y evacuadas al exterior previo paso por un filtro de carbón activo, de acuerdo con la documentación presentada por el promotor para la evaluación de impacto ambiental del proyecto, tomo «Anexo segundo al proyecto de actividades clasificadas para fábrica de paneles arquitectónicos. Enero de 2002».

c) Las emisiones atmosféricas procedentes tanto de la nave de proceso como de la instalación de combustión de gas propano, se ajustarán a los valores límite establecidos en el Decreto 833/1975, de 6 de Febrero por el que se desarrolla la Ley 38/1972, de 22 de diciembre, de protección del ambiente atmosférico.

2.D.– El programa de vigilancia ambiental deberá ejecutarse de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor para la evaluación de impacto ambiental del proyecto debiendo añadirse lo siguiente:

#### 2.d.1.– Controles en fase de obra

Deberá llevarse un registro de las eventualidades surgidas durante el desarrollo de las obras, así como del nivel de cumplimiento de las medidas protectoras y correctoras. Dicho registro deberá estar disponible para su inspección por la Viceconsejería de Medio Ambiente, y remitirse a ésta al finalizar las obras. Deberán documentarse detalladamente las modificaciones puntuales

mentatu beharko dira. Aldaketa horiek ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatu beharko dira.

#### 2.d.2.– Jarduera abian dagoen bitarteko kontrolak.

##### 2.d.2.1.– Hondakin-uren kalitatearen kontrola.

Isuria baimentzeko eskumena duen organoak ezarritakoa betetzeaz gainera, ondorengo kontrolak egingo dira:

a) Arazteko plantatik irteten diren efluentetan parametro hauek neurtuko dira:

- PH
- Eroankortasuna
- Solido esekiak
- Olioak eta koipeak
- DQO
- DBO5
- Detergenteak

Neurketak hiru hilean behin egingo dira.

b) Euri-uren sarearen irteeran, aurreko aldagaiez gain, prozesuan parte hartzen duten substantzien parametro ezaugarriak neurtuko dira. Neurketak urtean behin egingo dira.

Azterketa egiteko maiztasuna eta parametroak kontrola egiten den lehenengo urtetik aurrera aldatu ahal izango dira, lortutako emaitzen arabera.

##### 2.d.2.2.– Isuri atmosferikoen kontrola

a) Hala ekoizpen-nabetik nola gas propanoko erre-kuntzako instalaziotik ateratako isuri atmosferikoak aldizka kontrolatuko dira, otsailaren 6ko 833/1975 Legeak, Ingurune Atmosferikoa babesten duen 38/1972 Legea garatzen duenak, ezarritako baldintzekin bat etorrita.

b) Alabaina, ekoizpen-nabean sortutako gasen ezaugarriak jakite aldera, planta abian jarri eta lehenengo urtean, isuri atmosferikoen kontrola egingo da hilean behin, bai ikatz aktiboko iragazkitik igaro aurretik, bai eta igaro ondoren ere.

Kontrol horrek bi helburu izango ditu: alde batek, era horretan, ezarritako isurtze-mailak betetzen diren egiaztatuko da; bestetik, ikatz aktiboaren geruza xurgatzailearen bilakaera zehaztuko da, eta horrela, geruza berria noiz jarri behar den jakin ahal izango da.

Neurketon emaitzak horien balorazio txostenean jasoko dira eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko. Isurketen balio errealak aztertutakoan, Sailburuordetzak aldaketak ezarri ahal izango ditu, bai neurri zuzentzaileetan bai Ingurumena Zaintzeko Programan.

##### 2.d.2.3.– Zarataren kontrola

Instalazioak abiarazi eta horietan funtzionamenduprobak egin ondoren, jardueran sortutako zarataren

les que, en su caso, hayan sido introducidas durante la ejecución del proyecto. Dichas modificaciones deberán justificarse desde el punto de vista de su incidencia ambiental.

2.d.2.– Controles durante el funcionamiento de la actividad

2.d.2.1 Control de la calidad de las aguas residuales.

Sin perjuicio de lo que establezca el órgano competente para la autorización de vertido, se realizarán los siguientes controles:

a) A la salida de la planta depuradora, se analizarán los siguientes parámetros:

- PH
- Conductividad
- Sólidos en suspensión
- Aceites y grasas
- DQO
- DBO5
- Detergentes

La periodicidad de las medidas será trimestral.

b) A la salida de la red de aguas pluviales, además de las variables anteriores, se analizarán los parámetros característicos de las sustancias empleadas en el proceso productivo. La periodicidad de estos controles será anual.

Tanto la periodicidad como los parámetros podrán modificarse a partir del primer año de control, a la vista de los resultados obtenidos

##### 2.d.2.2.– Control de emisiones atmosféricas

a) Se llevará a cabo un control periódico de las emisiones atmosféricas procedentes tanto de la nave de proceso como de la instalación de combustión de gas propano, en las condiciones establecidas en el Decreto 833/1975, de 6 de febrero, que desarrolla la Ley 38/1972 de Protección del Ambiente Atmosférico.

b) No obstante lo anterior, y con objeto de caracterizar los gases generados en la nave de producción, durante el primer año de funcionamiento de la planta se realizará un control mensual de emisiones antes y después de su paso por el filtro de carbón activo..

Este control tendrá el doble objetivo de verificar, por una parte, el cumplimiento de los niveles de emisión impuestos y, por otra, determinar la evolución del lecho absorbente de carbón activo con el fin de prever la frecuencia necesaria de reposición del mismo.

Los resultados de estas mediciones se incluirán en un informe de valoración de los mismos, que será remitido a esta Viceconsejería de Medio Ambiente, quien a la vista de los valores reales de emisión podrá establecer modificaciones tanto en las medidas correctoras como en el Programa de Vigilancia Ambiental.

##### 2.d.2.3.–Control del ruido

Tras la puesta en marcha y las pruebas de funcionamiento de las instalaciones, se llevará a cabo un control

kontrola egingo da. Laginketa-guneak zehaztean, albo-ko industria-jarduerak kontuan izan beharko dira.

#### 2.d.2.4.– Tresneriaren kontrola

Urtero, tresneriaren kontrolean espezializatutako enpresa batek prozesuak kontrolatzeko sistemen funtzionamenduari eta ingurumenaren kalitatea zaintzeari buruzko txostena egingo du.

#### 2.d.2.5.– Agiri bategina

Sustatzaileak ingurumeneko zaintza-programaren agiri bategin bat egin beharko du. Agiri horrek jaso beharko ditu ingurumen-inpaktuaren azterketan proposatutako eta Ebazpen honetan adierazitako kontrolak, eta proposamen justifikatu bat egin beharko du uretan eta atmosferan aztertu behar diren parametroei buruz, jarduerak sortutako eflueenteen eta gasen ezaugarriak aintzat hartuta. Era berean, dagokion aurrekontua jaso beharko du.

#### 2.d.3.– Emaitzak bidaltzea

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txosten eta analisisen emaitzak behar bezala erregistratu, eta Ingurumen Sailburuordetza honetara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira ingurumenean aditua den erakundeak egindako txostenarekin batera. Aipatutako txostenean emaitzen analisia jasoko da, epe horretan izandako gertakari nagusiak, haien kausak eta konponbideak bereziki aipatuta.

Sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta Administrazio Publikoen ikuskaritza-zerbitzuen eskueran egongo dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpena izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

2.E.– Neurri babesle eta zuzentzaileak eta, halaber, ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, baita neurtu behar diren parametroak, neurketa egiteko maiztasuna eta parametro horien mugak ere. Aldaketok egingo dira araudi berriak indarrean jartzeak edo inplikaturako sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharrak hala gomendatzen duenean. Halaber, bai neurri babesle eta zuzentzaileak bai ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, sustatzaileak eskatuta zein ofizioz, ingurumena zaintzeko programaren emaitzen arabera.

2.F.– Ebazpen honek aurreko idatz-zatietan ezarritakori kalterik egin gabe, sustatzaileak honako agiri hauek bidali beharko dizkio Ingurumen Sailburuordetzari:

del ruido generado en la actividad. En la definición de los puntos de muestreo deberá considerarse la presencia de actividades industriales colindantes.

#### 2.d.2.4.– Control de la instrumentación

Con periodicidad anual, una empresa especializada en el control de la instrumentación realizará un informe sobre el funcionamiento de los distintos sistemas de control de los procesos y de vigilancia de la calidad del medio

#### 2.d.2.5.– Documento refundido

El promotor deberá elaborar un documento refundido del programa de vigilancia ambiental, que recoja los controles propuestos en el estudio de impacto ambiental y los señalados en la presente Resolución, debiendo incorporar una propuesta justificada de los parámetros que deben ser analizados en aguas y atmósfera en función de las características de los efluentes y gases generados en la actividad. Deberá incorporarse asimismo el correspondiente presupuesto.

#### 2.d.3.– Remisión de los resultados

Los resultados de los diferentes análisis e informes que constituyen el Programa de Vigilancia quedarán debidamente registrados y se remitirán a esta Viceconsejería de Medio Ambiente. Dicha remisión se hará con una periodicidad anual y los resultados del programa de vigilancia deberán acompañarse de un informe realizado por una entidad especializada en temas ambientales. Dicho informe consistirá en un análisis de los resultados, con especial mención a las incidencias más relevantes producidas en este periodo, sus posibles causas y soluciones.

Sin perjuicio de la normativa que sea de aplicación en cada caso, los diferentes datos se almacenarán por parte del Promotor del proyecto en un soporte adecuado durante al menos dos años, estando a disposición de los servicios de inspección de las Administraciones Públicas.

2.E.– Las medidas protectoras y correctoras, así como el Programa de Vigilancia podrán ser objeto de modificaciones, incluyendo los parámetros que deben ser medidos, la periodicidad de la medida y los límites entre los que deben encontrarse dichos parámetros, cuando la entrada en vigor de nueva normativa o cuando la necesidad de adaptación a nuevos conocimientos significativos sobre la estructura y funcionamiento de los sistemas implicados así lo aconseje. Asimismo, tanto las medidas protectoras y correctoras como el Programa de Vigilancia Ambiental podrán ser objeto de modificaciones a instancias del Promotor de la actividad, o bien de oficio a la vista de los resultados obtenidos por el Programa de Vigilancia Ambiental.

2.F.– Sin perjuicio de lo dispuesto en anteriores apartados de esta Resolución, el promotor deberá remitir a la Viceconsejería de Medio Ambiente los documentos siguientes:

2.f.1.— Ebazpen hau argitaratu eta hilabeteko epean, ingurumeneko zaintza-programaren agiri bategina —Ebazpen honen 2.d.2.5. idatz-zatian adierazitakoa— bidali beharko da, Ingurumeneko Sailburuordetzak onetsi dezan.

2.f.2.— Obrak amaitzean, obra horiek garatu bitartean sortutako gorabeheren erregistroa, neurri babesleak eta zuzentzaileak zein neurritaraino bete diren jasoko duena, Ebazpen honen 2.d.1 paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

2.f.3.— Urtero, jarduera hasten denetik, Ebazpen honen 2.d.3 paragrafoan ingurumena zaintzeko programari buruz aurreikusitako dokumentua.

3.— Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 47.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren adierazpen honek, ondorio guztietarako, jarduera-lizentzia emateko behar diren neurri zuzentzaileen txostena ordezkatzeko duela jakitera ematea.

4.— Bi urteko epea finkatzea proiektuaren egikaritzari hasiera emateko, Ingurumen Inpaktuaren Adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik kontaktzen hasita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 47.8 artikuluari jarraituz. Epe hori bukatu ondoren egikaritzari hasiera eman ez bazaio sustatzaileari egotzi dakizkiokkeen arrazoiengatik, Ingurumen Inpaktuaren Adierazpen hau baliogabetu egingo da. Hala ere, organo eskudunak hasiera emateko epea luzatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoirik balego.

5.— Ingurumen Inpaktuaren Adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko otsailaren 28a.

Ingurumen sailburuordea,  
IÑAKI EZKURRA YURREBASO.

2.f.1.— En el plazo de un mes desde la publicación de la presente Resolución, el documento refundido del Programa de Vigilancia Ambiental previsto en el apartado 2.d.2.5 de la presente Resolución, para su aprobación por parte de esta Viceconsejería de Medio Ambiente.

2.f.2.— Al finalizar las obras, el registro de las eventualidades surgidas durante su desarrollo, así como del nivel de cumplimiento de las medidas protectoras y correctoras, de acuerdo con lo previsto en el apartado 2.d.1 de esta Resolución.

2.f.3.— Con una periodicidad anual desde el inicio de la actividad, el documento relativo al Programa de Vigilancia Ambiental previsto en el apartado 2.d.3 de la presente Resolución.

3.— Informar que, de acuerdo con el artículo 47.3 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, esta Declaración de Impacto Ambiental sufre, a todos los efectos, al informe de medidas correctoras necesario para el otorgamiento de la licencia de actividad.

4.— Imponer, de acuerdo con el artículo 47.8 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, un plazo para el inicio de la ejecución del proyecto de 2 años, a contar desde la publicación de la presente Declaración de Impacto Ambiental en el Boletín Oficial del País Vasco. Transcurrido dicho plazo sin haberse procedido al inicio de la ejecución del proyecto, por causas imputables al promotor, la Declaración de Impacto Ambiental perderá toda su eficacia. No obstante, el órgano competente podrá prorrogar el plazo de inicio de ejecución si existieran causas debidamente justificadas.

5.— Ordenar la publicación de la presente Declaración de Impacto Ambiental en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2003.

El Viceconsejero de Medio Ambiente,  
IÑAKI EZKURRA YURREBASO.